



# Eusko Jaurlaritzaren 95/13IP ikerketa-proiektua

**E**konomi zientziaren beste arloetan bezala, baliabide berriztagarriari buruzko literaturan eredu dinamiko konplexuak garatzen ari dira. Arrantzarena ikerketa-kasu paradigmaticotzat hartuz, eredu horien helburua arrantza-baliabide gehiegi zergatik erabiltzen diren, eta behar adina etekin zergatik lortzen ez den argitzea litzateke. Abiapuntua, berriz, honakoa: baliabideak gaizki kudeatzearen arrazoiak menderatzea ezinbesteko lehen baldintza da adituek gehiegikeriak ezabatzeko ekintzak diseinatu ahal izateko. Arrantza ondo kudeatzeko oinarriko bi zailtasun nagusi daude. Alde batetik, arrantza-baliabideak beren ugalketa- eta hazte-baldintzak dituztenez, beren eboluzioaren lege biologikoak ezagutu behar dira, eta ez da beti erraza izaten horien ezaguera empirikoa lortzea. Bestalde, baliabide horiek ustiatzeko *ziurgabetasun* handia dago, stock-en maila eta egoera ezagutzeaz gain, egoera aldatuz gero arrantza-jarduerak biomasan zein eragin izan dezakeen jakitea ikaragarri zaila delako. Eguraldia, baliabideak aurkitzeko zailtasuna, espezie askok lekuz aldatzeko duten joera, eta beste zenbait arrazoi direla eta, ezinezkoa da ezarritako neurriek stock-etan dituzten ondorio zehatzak ezagutzea. Horiek horrela, ingurugiro-gaiekin egiten den antzera *arreta-printzipioa* aplikatzea eta hainbat baliabide ziurtatzea komeni dela pentsatzen hasiak gara. Arrantza kudeatzeko arreta-printzipioa erabiltzeko modua finantza-munduko kudeaketa arrantzaren kudeaketari aplikatuz ikas daitekeena eta ezagutu daitezkeen estrategiak aztertzea da. Ziurgabetasun-egoeretan, eta ondorioz sortzen den arrisku-giroan, inbertitzaileari aktiboak dibertsifikatzea, eta ez arriskua kontzentratzea, komeni baldin bazaio, arrantza-gaiekin ere ez ote litzateke dibertsifikatzea komeni, besteak beste gehiegi ustiatuz agortzeko arriskua duten baliabideentzat ustiapen-egoera zehatzeko debekaldiak ezarritik? Aurreikusitako ezinezko gertakizunen ondorioz oso zaila da arrantzaren munduan kontrol-neurriak ezartzea. Izan ere, arrain-harrapaketa aldaketak direnean eta zenbatekoa aurretik zehaztu ezin daitekeenean, aipatutako neurriek kudeaketa-gastu handiak sortzen dituzte, eta askotan ez dute inolako arrakastarik izaten. Horregatik, beste era bateko aukerak ikeritzen hasi dira, besteak beste C.W. Clark, T. Lauck eta G.R. Munro-k 1995ean proposatutako **erreserba babestua**. Kontrako argudioa honakoa litzateke: stock babestua mantendu beharrean kudeaketa-estrategia kontserbadoreagoa aukera-

- X **Proiektuaren izenburua:** Ziurgabetasun Ekonomia, Arreta Printzipioa eta Ingurugiro zein Natura Baliabideen Kudeaketan dauden Arriskuak Estaltzeko Teknikak.
- X **Proiektuaren helburua:** Arrantza-baliabide gehiegi zergatik erabiltzen diren eta behar adina etekin zergatik lortzen ez den argitzea.
- X **Zuzendaria:** M<sup>a</sup> Carmen Gallastegui Zulaica.
- X **Lan-taldea:** Alberto Ansoategui Cobo, Jose Manuel Chamorro eta Raul Pallezo (bekaduna).
- X **Saila:** Ziurgabetasun Ekonomia.
- X **Fakultatea:** Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultatea.

teza; adibidez, epe ertainean arrain-populazioa batezbestekoa baino askoz handiagoa denean baizik harrapatzen ez uztea. Proposamen horrek kudeaketaren helburua aldatuko luke: ahalik eta harrapaketa gehien eginez biomasa mantenduko duen ustiaketa egin beharrean, biomasa handiagoa lortzen saiatzea. Hala ere, ziurgabetasun handia baldin bada, eta perdoia, espezie batzuetan behinik behin, handia baldin bada, aipatutako estrategia arriskutsuegia da harrapa litekeen arrain-kopurua kalkulatzeko, eta beharrezkoa da baliabideak babesteko ahalegin handiagoa egitea. Beraz, arretaren printzipioa baliabide berriztagarriaren kudeaketara aplikatzea kontuan hartu beharrezko aukera dugu, nahiz eta, errealitate izanik, arrain-populazioen dinamika zein hasierako kopuruak gorabehera handiak izan ditzaketela aitortu behar dugun. Horrez gain, nahiz eta harrapaketa-helburu egokiak ezarri, eta horiek betetzen saiatu, faktore horiek aldeztu aurretik ezarritako mailara egokituko direnik ez dago ziurtatzerik. Ekonomi politikako beste alorretan gertatzen den bezala (gogora dezagun moneta- eta truke-politikako zailtasunak direla eta helburu zehatzaren ordez jardueraren bandak proposatu direla), arrantzaren alorrean ere ezarritako helburuak betetzea zenbaitetan ezinezkoa dela onartu beharra dago.

M<sup>a</sup> Carmen Gallastegui Zulaica

